



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2002ko irailaren 27a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura-aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Andoni Sarasua Oliden, Eneko Dorronsoro Portularrume, Itziar Olariaga Larrañaga, Daniel Barrenetxea Sarasua eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Jose Miguel Leunda Zubizarreta, herritik kanpo dagoelako.

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2002ko uztailaren 16an egindako ezohiko bilkurako akta.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko 2001eko Aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Onartzea, egoki bada, mailegu kontratu baten formalizazioa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Eusko Gudari, Aritzaga eta Herriko plaza urbanizatzeko obren 2. fasearen exekuzioaren behin betiko adjudikazioa.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

- 5.- Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, 4.1.2 zonako —Azkue industriak— eta inguruko Barne Erreformako Plan Bereziari.
- 6.- Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko hondartza inguruko (AIU3) Plan Partzialaren aldatetari.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2002KO UZTAILAREN 16AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatzarrak 2002ko uztailaren 16an egindako ezohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO 2001EKO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko irailaren 17an egindako Haziendako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko Udaleko 2001eko Aurrekontuaren Kontu Nagusia.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, MAILEGU KONTRATU BATEN FORMALIZAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko irailaren 25ean egindako Haziendako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

1.- ONARTZEA mailegu kontratu baten formalizazioa. Onartutako maileguaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Entitatea: Kutxa.

Zenbatekoa: 3.358.289,85 euro.

Amortizazio epea: 10 urte.

Gabealdia: 2 urteraino.

Interesa: Aldakorra, hiruhileko Euribor + % 0,20

Helburua: 2002ko ekitaldiko inbertsioen finantzaketa.

Komisioak eta bestelako gastuak: Ez daude.

2.- JENDAURREAN JARTZEA maileguari dagokion espedientea hamabost laneguneko epean, interesdunek aztertu eta horren kontra erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKO GUDARI, ARITZAGA ETA HERRIKO PLAZA URBANIZATZEKO OBREN 2. FASEAREN EXEKUZIOAREN BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko irailaren 23an egindako Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA Eusko Gudari, Aritzaga eta Herriko plaza urbanizatzeko obren 2. fasearen exekuzioaren behin betiko adjudikazioa SOHERCON SA enpresaren alde. Adjudikazioaren prezioa 1.121.278,02 eurokoa da, eta exekuzio epea, berriz, 8 hilabetekoa.

5.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 4.1.2 ZONAKO —AZKUE INDUSTRIAK— ETA INGURUKO BARNE ERREFORMAKO PLAN BEREZIARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak 2002ko uztailaren 16an egindako ezohiko bilkuran honako erabakiak hartu zituen:



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 'Inmobiliaria Orio Txoko Txiki, SL' entitate merkantilak sustatutako eta Luis Ulazia Etxeberria arkitektoak idatzitako Barne Erreformako Plan Bereziari, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen 4.1.2 zonari —Azkue industriak— eta inguruari dagokiona.

2.- Plan Berezi hori JENDAURREAN AGERTZEA hamabost laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Gipuzkoako hedapen handiko egunkarietako batean azkenik argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Epe horretan espedientea aztertu nahi duenaren eskuera izango da Udal honetako idazkaritzan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30etara, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Barne Erreformako Plan Berezi hori hamabost lanegunetz egon zen jendaurrean: 2002ko uztailaren 27tik abuztuaren 19ra. Epe horren barruan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Epea amaitu ondoren, 2002ko abuztuaren 27an, alegazio idatzi bat aurkeztu zuten Maria Jesus eta Maria Digna Alzuru Arruek. Idatzi horretan honakoa adierazten zuten, labur emanda:

1.- 2001eko urtarrilaren 18an aurkeztu zuten alegazio idatzian adierazitakoari eusten diotela.

2.- Beren ustez, Plan Bereziaren esparruaren barruan, lur gehiegi destinatzen dela erabilera publikorako.

3.- Urbanizazio kostuei dagokienez, ordenamenduz kanpo dauden eraikinengatik ordaindu behar diren indemnizazioak altuegiak direla, luraren azaleraren eta aprobetxamenduaren proportzioan. Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaie Plan Bereziaren esparruaren azalera handitzea.

4.- Babes ofizialeko etxeei urbanizazio kostuak ez atxikitzea ez zaie zuzena iruditzen.

5.- Planteatutako ordenamenduaren kontra daudela guztiz, uste dutelako ez zaiola zuzenbideari lotzen; eta, beraz, errekurtsio kontentzioso-administratiboa aurkeztuko diotela behin betiko onarpenari.

Idazkariak, alegazio horri erantzunez, txosten bat egin du, 2002ko irailaren 23an, eta txosten horretan dio goiko alegazio horiek atzera bota behar direla, inolako oinarri juridikorik ez dutelako.

Kostako Zuzendaritzak, bestalde, 2002ko irailaren 2an, aldeko txostena egin zuen aipatutako Barne Erreformako Plan Bereziari buruz.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2002ko irailaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 6 boto: Arruabarrena (EAJ), Etxeberria (EAJ), Eneko Olariaga (EAJ), Garate (EAJ), Sarasua (EAJ) eta Cotado (EA). 3 abstentzio: Itziar Olariaga (Batasuna), Dorronsoro (Batasuna) eta Barrenetxea (Batasuna)]:

1.- ATZERA BOTATZEA Maria Jesus eta Maria Digna Alzuru Arruek epez kanpo aurkeztutako alegazioak.

2.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA 'Inmobiliaria Orio Txoko Txiki, SL' entitate merkantilak sustatutako eta Luis Ulazia Etxeberria arkitektoak idatzitako Barne Erreformako Plan Bereziari, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen 4.1.2 zonari —Azkue industriak— eta inguruari dagokiona. Erabaki honek ez dio inolako aldaketarik egiten 2002ko uztailaren 16ko bilkuran Udalbatzarrak emandako lehen onarpenari.

3.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentura erabaki honen ziurtagiria eta Plan Bereziari dagokion espediente osoa, azter dezaten eta, ondoren, Diputatuen Kontseiluari Plan Bereziaren behin betiko onarpenera proposa diezaioten.

Emandako botoa azaltzeko, Itziar Olariagak hartzen du hitza eta, Batasunaren izenean, honakoa dio: gai honi buruz Batasunak alegazioa aurkeztu zuela eta oraindik ez dutela horren erantzun ofizialik jaso. Aurkeztutako alegazio horri eutsi egiten diote oraindik eta, erantzuna jaso bitartean, abstentzio botoa emango dute.

6.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZA INGURUKO (AIU3) PLAN PARTZIALAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak 2002ko uztailaren 16an egindako ezohiko bilkuran honako erabakiak hartu zituen:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalak sustatutako eta Jose Maria eta Carmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzitako Orioko Hondartzako 3. zenbakidun Interbentzio Urbanistikorako Inguruko Plan Partzialaren Aldaketari.

2.- Aldaketa hori JENDAUURREAN AGERTZEA hamabost laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Gipuzkoako hedapen handiko egunkarietako batean azkenik argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Epe horretan espedientea aztertu nahi duenaren eskueran izango da Udal honetako idazkaritzan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30etara, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Plan Partzialaren aldaketa hori hamabost lanegunez egon zen jendaurrean: 2002ko uztailaren 27tik abuztuaren 20ra. Epe horren barruan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Idazkariak 2002ko irailaren 23an egin zuen gaiari buruzko txostena, eta Kostako Zuzendaritzak, bestalde, 2002ko irailaren 5ean egin zuen aldeko txostena aipatutako Plan Partzialaren aldaketari buruz. Txosten horretan ohar bat baizik ez da egiten: II.2 planoaren legendan *línea de servidumbre* izena ematen zaio berez *línea de deslinde* behar lukeenari, eta alderantziz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, goian aipatutako bi txostenak ikusita, 2002ko irailaren 23an egindako Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak eta 2002ko irailaren 26an egindako Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenen bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA Orioko Udalak sustatutako eta Jose Maria eta Carmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzitako Orioko Hondartzako 3. zenbakidun Interbentzio Urbanistikorako Inguruko Plan Partzialaren Aldaketari. Erabaki honek ez dio funtsezko aldaketarik egiten 2002ko uztailaren 16ko bilkuran Udalbatzarrak emandako lehen onarpenari.

2.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentura erabaki honen ziurtagiria eta Plan Partzialari dagokion espediente osoa, azter dezaten eta, ondoren, Diputatuen Kontseiluari Plan Partzialaren behin betiko onarpena proposa diezaioten.

3.- Orioko Batasunako zinegotziek aurkeztutako proposamenak urbanizazio proiektuaren barruan aztertzea. Proposamenak honako hauek dira:

1.- Zaragueta ikastetxeraino bidegorria eta errepedea gurutzatzeko lur azpiko pasagunea.

2.- Dunaren antolaketaz eta erabilgarritasunaz zehaztapen gehiago.

3.- Antenak ez izatearren, kabledun sarea.

4.- Bizikletak aparkatzeko lekuak hondartzako pasealekuaren inguruan.

Emandako botoa azaltzeko, Itziar Olariagak hartzen du hitza eta, Batasunaren izenean, honakoa dio: hasiera batean bere talde politikoa ez zegoen ados hondartza



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

inguru horretan planteatzen zen ordenamendu urbanistikoarekin; baina, gero, hainbat konpromiso hartu zituzten EAJrekin eta EArekin batera, ordenamendu horretan hobekuntzak egiteko. Kontuan izanda ordenamenduan hobekuntzak egin direla eta, hobekuntza horiek egiterakoan, beren proposamenak kontuan hartuak izan direla, hasierako iritzia aldatu dute eta horregatik azaldu dira Plan Partzialaren aldaketaren alde. Itziar Olariagak adierazten du, hala ere, bere talde politikoa, lehen bezala, ez dagoela orain ere ados kirol portuaren kokapenarekin.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,